# BARREN

1998ko abenduaren 4a
V. urtea - 259. zkia

ELGOIBARKO ASTEKARIA

**ZENBAT BURU**
Nieves Loiola

**ERREPORTAJEA**
Zapatariak Elgoibarren



**UDALETXETIK**
Azaroaren 27ko plenoan Sigmaren gaia aztertu zen

**GEHIGARRIA**
Kale zulotik baserrira

**BERBETAN**
Amaia Unamuno, Ikastolako ingeles irakaslea



# Zapatarien ofizioa Elgoibarren

**"Garai batean, neurrira egindako zapatak bizitza osorako izaten ziren"** Pedro Merino

# JAKIN
akademia

## INFORMATIKA

- Ofimatika
- Aurkezpen grafikoak
- Programazio hizkuntzak
- Internet

## KONTU ETA MERKATAL GESTIOA

- Nominak eta gizarte segurantza
- Kontabilitatea
- Fakturazioa

## MEKANOGRAFIA

## KLASE PARTIKULARRAK

- Matematika
- Fisika
- Kimika
- Kontabilitatea
- Matematika finantzieroa
- Literatura
- Latina
- ...

TALDE MURRIZTUAK • KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Arregitorre, 6 • Tel: 943 74 08 95 ELGOIBAR I Santalaitz, 6 • Tel: 943 76 00 68 BERGARA





## ARAMBURU

BITXIDENDA

Gabonetako opariak aukeratzerakoan, gogoan izan, aurten ere, urrezko bi erloju hauek bezeroen artean zozketatuko ditugula.

SAN FRANTZISKO, 26 TEL. 943 74 25 35



NIEVES LOIOLA

# Einesmen gutxiko garalak

BARRENen idazteko denboraldirako azken txanpa iritsi zaidanean eta abenduari hasiera ematen diogun honetan, kezkatzen nauen zerbaiti buruz hitz egin gabe ezin dudala geratu pentsatu dut.

Nire haurraren bidez, pasa den urtean jakitera eman zidaten Kristau Ikasbidean katekistak falta zirela. Orduan pentsatu nuen,mundu horretara hurbildu eta nire aportazio txikia ematea, baina barrutik ikusi dudanean, lehen pentsatu ere egiten ez nituen gauzez konturatu naiz, batik bat, bi gauza azpimarragarrirekin.

Lehenengoa, urteetan gure haurrei kristau heziketa ematen ahalegintzen diren hainbat eta hainbat pertsona ari direla musutruk.

Eta bigarrena, guraso gehienek kristau heziketa ren aurrean duten pasibitatea.

Gauza hauek kontuan harturik, galdera batzuk etortzen zaizkit burura.

- Zergatik bidaltzen ditugu gure haurrak Kristau Ikasbidera? Lehenengo Jaunartze 'egun polita'ren truke ote da?
- Gure haurren kristau heziketa, astean ordu erdiko saiotxo batean 14 umerekin katekista batek egiten duen ahaleginean oinarritu behar dugu?
- Gaur egun eskoletan, gurasoen partaidetza gero eta handiagoa dela ikusita, eta gurasook, inork derrigortu gabe, kristau heziketa ematea erabaki dugula kontuan hartuta, zergatik uzten dugu kristau heziketa katekisten esku soilik? Zergatik bileretan, katekistak falta direla esaten denean, beste aldera begiratzen dugu gurekin ez datorrela bat pentsatuz?

**"Gure umeak lore ederrak bezalakoak dira, haiek bezala zaindu beharrekoak, eta gurasoak gara eurentzako eredua. Aspaldikoa da lumearen zentzuna etxean entzuna' esaera "**

Tamalgarria da gure haurrei ea elizara joaten diren edo otoiz egiten duten galdetzen diegunean, honako hau bezalako erantzunak entzutea: `ez, ze igandero gurasoekin mendira joaten naiz', edo `ez, ze nire gurasoak ez dira joaten', edo 'ez dakit otoitz egiten, ze nire aitak eta amak ez dakite'. Beste hau ere entzun izan dugu batzuen ahotan: 'erakutsi dezatela katekistek, horretarako daude eta'.

Gure umeak lore ederrak bezalakoak dira, haiek bezala zaindu beharrekoak, eta gurasoak gara eurentzako eredua. Aspaldikoa da 'umearen zentzuna etxean entzuna' esaera. Gure pentsaera eta portaera ez baldin badira kontsekuenteak, hipokresian emrtzen bagara, nola eskatuko diegu haurrei jator jokatzeko? Norengan edukiko dute konfidantza?

Uste dut gogoeta merezi duela.

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Barrak, Birrak eta Barreak



# BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGO1BAR
943 74 41 12
Publizitatea:
w 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

| | |
|---|---|
| ARGITARATZAILEA | Elgoibarko Izarra |
| LAGUNTZAILEA | Elgoibarko Udala |
| ZUZENDARIA | Ainhoa Lodoso |
| KAZETARIAK | Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro |
| PUBLIZITATEA | Miren Moreno |
| MAKETATZAILEA | Bea Ansola |
| ADMINISTRAZIOA | Amaia Martin |
| GERENTZIA | Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste. |
| KOLABORA17AILEAK | frati Agirreazaldegi, Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maider Elustondo, Jon Eugi, Koldo GaIdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Alberto lriondo, Iñaki Jaio, KOKOE, lmanol Larrañaga, Nieves Loiola, Ongarri Zine Klutia, Asier Orbea, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, lban Urizar, Miren |
| BANAKETA ARDURADUNA | lmanol LarraliaGa |
| INpRimATEGIA | Gertu Koop. E. |
| TIRADA | 4.000 ale |
| LEGE GORDAILUA | SS-1.038/92 |
| ISSN | 1139-1855 |

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saitak eta Foru Aldundtak diruz lagundutako* ***aldizkaria.***



gil12 Ofundazioa fundaci6n

MDANOBAT

4SGOITI
GRUPO DANOBAT




OHARRA:
Abenduaren 8ko jai-zubia dela-eta, bilaren Iln ez duzue BARRENik aurkituko zuten buzoeitan. Hurrengo zenbakiak hilarett 18an eta 24an aterako ditugu, azken hau Gabonetako ale berezia.

## Maite ditut maite, gure (erreka) bazterrak

Dueia pare bat urte Valentziara joatea suertatu zitzaidan, eta gogoan dut hiriaren kanpoaldea zaborrez beteta eta zikin-zikina zegoe]a. Zer narrazkeria! pentsatu nuen. Ez ote dira konturatzen zein inpresio txar egiten dion honek kanpotik datorrenari? Eta zer arduragabekeria adierazten duen hiritarren nahiz erakundeen partetik?

Ba, ziur egon hauxe bera pentsatu izan dutela gure herritik pasatu diren askok eta askok. Izan ere, Elgoibarko lehenengo inpresioa, `aurkezpen txartela', ezagunena edo ikusiena behintzat, ibaiaren aldetik ikusten dena da, eta hau benetan penagarria da.

Gure ibai ertzek zabortegiak dirudite: plastikoak, latak, botilak, kartoiak, zakar poltsak... Onartezina da ingurugiroaz arduratzen den herri batentzat.

Ulertzen dut ibaia garbitzea ez dela elgoibartarrok gure aldetik bakarrik egin dezakegun zerbait, baina ziur egon zeozer egin dezakegula erreka bazterrak garbitzeko. Nola? Udalak, arazoa aztertuz eta planak martxan jarriz, eta gutariko bakoitzak, gure hondasuna den ibaiarekiko kontzientzia hartuz (oraindik ere bada zaborra leihoetatik hotatzeko ohitura `erosoa' duenik).

Askotan, badirudi hain ohituak gaudela zikinkeria honekin, ikusi ere ez dugula egiten. Baina egon hor dago, eta ez zait iruditzen ezinezkoa tzatekeenik ibai ertzak txukuntzea horretara jarriz gero.

**P. L.**


BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.
Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko.
Ez ahaztu datu hauek jartzea: **fzen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia.**

• "Elgoibartar bat naiz eta joan den zapatuan Mendarora joan nintzen hileta-elizkizun batera. Azpilgoetako kanposantuko sarrera nola dagoen lotsagarria begitandu zitzaidan. Herrian hainbeste hobekuntza egin direla ikusita (Garagarza auzoan batez ere), gutxienez rriko sarreran asfaltoa botatzea eta farolaren bat ipintzea beharrezkoa dela iruditzen zait. Eguraldi txarrarekin lokaztu egiten da, eta argirik ez dagoenez, jendea erraz eror daiteke".

• Bi emakume etorri zaizkigu Merkatu Plazako bigarren solairuan (Euskaltegiaren gainean) solfeora joaten diren umeek, Ieihoak ireki eta gorputz erdia kanpora ateratzen dutela esateko. "Leiho horiek zahar xamarrak dira eta egunen batean zerbait larria gertatuko da. Proposamen modura, leihoak hesi batzuekin istea ondo legokeela uste dugu".

• Santa Klarako bi auzotar etorri zaizkigu salaketa bat egiteko: "Santa Klaran plazoleta moduko bat dao eta oin dala hilabete batzuk lurra azulejoz estali zaben eta lorak jartzeko lekua ere ein zan. Lehenao, kotxiak aparkatzen zian bertan. Plazia ein zanian kotxiak aparkatziari laga zioten baina oin berriz hasi dia kamioiak eta kotxiak aparkatzen. Hain politxak zeuden azulejuetako asko zartau ein dia eta nahiko peligrosua dao. Udaletxera idatzi bat eruan dogu kotxiak ez aparkatzeko eskatuz baina ez digute kasorik ein. Azkenian BARRENEra kejatzera etorri bihar izan gera. Kotxedunek errespeto gehixo erakutsi biharko leukie eta beste lekuren batian aparkau, Plazia ez dalako gure ustez aparkatzeko tokirik aproposena".

• Bi herritarrek deitu digute "Herriko Antzokiko pelikulak anuntziatzeko daozen bitrinak apurtu ditxuztela" salatzeko. Aurreko zapatu goizaldean izan zen gertaera eta *Pilon* tabernako mahaiak eta aulkiak ere hankaz gora utzi zituen norbaitek. "Ez dao deretxorikan danonak diazen gauzak horrela txikitzeko. Ez dao ulertzerikan zergatik pertsona batzuek horrelako gauzak eitxen ditxuen. Ze kulpa izango ote zaben bitrinok?".



• Gazte talde bat kexatzera etorri da: "Urasandin, patinentzako pista urriaren erdi aldera jartzeko hitza eman zuen Udalak baina ez da inongo mugimendurik ikusten. Ikusiko al dugu ditxosozko pista hori?".

• Basarte kaleko biztanle batek kexa hau bidali digu posta elektronikoz: "Elgoibarko Udalak IMH inguruko etxeetako biztanleak ahaztuta dauzka. Inguruan ez daukagu zakarrontzi bat bera ere. Bestalde, asper-asper eginda gaude botilak eta papera, kalera autoz eramateaz. Pena da jendea ingurugiroaz gero eta gehiago kezkatzea eta agintariek, berriz, halako ardura gutxi izatea".

## TXALOAK

* Herritar batek Ikastolako Argitxo Irratia txaiotu nahi du. "Oso alaia da eta konpainia handia egiten digu egun guztian. Denbora askoz horren alai jarraitzea gustatuko litzaiguke, gure bulegoan hain ongi entzuten den emisora bakarra baita. Eskerrik asko".


TIRO RIRO ..... raq 1119'



Astelehena, abenduak 7
arratsaldeko 19:30ean,
INAUGURAZIOA
9444tauta
San Frantzisko, 60 • Tel. 943 74 13 86



# \currim egiRddko zdpaldk, oszko

*Tipi, tapa, tipi, tapa.... Bidea oinez egiten da eta, Ibtliaren ŕ6111az, oinetalioak tzorratu egtten dira. Gaur egun, moda kontuak eraginda batez ere, zapatak sarri aldatzen ditugu. Baina, garai batean oinetakoak neurrira egiten ziren eta, hondatutakoon, zapatak zapatariari cramaten zitzalzkion honch konpon zitzan. Artelana da zapatariarena eta galtzen ari den otizioa izanik, ferro hauetan lanbide honen berri emanaz, era batera edo be5tera berreskuratu nahi izan dugu.*

¯¯rratia piztuta eta umoretsu zegoen Pedro Merino Errosario kaleko Iokal txikira joan ginenean. Prest azaldu zen bere lanbideari buruzko azalpenak emateko. Izan ere, bera dugu gaur egun Elgoibarren oinetakoak neurrira egiteko gai den bakarra. Betaurrekoak sudur gainean eta amantal urdina altzoan, eskuan mailua hartuta, jo eta ke zebilen oinetako baten takoia kortxoz betetzen, "gaur egungo zapatak hutsak datoz. Garai batean neurrira egiten genituenak, haiek bai zirela bizitza osorako zapatak!". Pedro 8 urteko mutil koskorra zen zapatari lanean hasi zenean. "Sei urte behar dira oinetakoak ondo egiten ikasteko. Ni 8 urterekin hasi nintzen lanbide honetan eta 14 urte nituenerako gai nintzen neurri eta modelo guztietako zapatak egiteko". Egun eta erdi behar da, gutxi gorabehera, oinetako parea egiteko. "Lehenik eta behin neurria hartzen zaio bezeroaren oinari: luzera, zabalera, gogorruneak... detailerik txikiena ere kontuan hartu behar da. Ondoren, bezeroak materiala, kolorea eta modelua aukeratzen ditu eta hortxe hasten da benetako lana: moztu, azpikoa leundu, takoia alez ale egin, josi, forma eman...". Edozein modutan, merezi duela konbentzitua dago Pedro, "gaur egun jende askok arazoak ditu oinekin. Lehen jendeak ez zuen izaten arazorik eta, gainera, zapatak ia bizitza osorako ziren. Zergatik? Ba orain modelo estandarrak daudelako dendan eta horietara egokitu behar da oina. Lehen, aldiz, neurrira egiten zen eta horrek esan nahi du oin bakoitzak bere zapata duela".



Pedro Merino 8 urterekin hasi zen zapatari.

Pedrok 65 urte ditu eta aurten da jubilatzekotan. Udan, "denbora pasatze aldera", bota batzuk egin zituen eta benetan esan dezakegu oso itxura ona zutela, ondo forratuak, itxura erosoa baina gogorra aldi berean.... "Cordoban zapataria den gizon bat ezagutzen dut eta hark 50.000 pta. kobratzen ditu oinetakaak neurrira egiteagatik. Oso jende gutxi dago hori ordaintzeko prest eta pena da, benetan zapata onak dira eta".

## ZdpdiCIR usainean hazia

Miguel Merino, Pedroren semea da eta 36 urte ditu. Txikitatik larruaren usainean eta hari artean jolastu duela esan daiteke. Miguelek jarraitu dio aitak hasitakoari. "Lanik ez nuen aurkitzen eta zapatadenda irekitzea erabaki nuen. Polikipoliki, aitarengandik jasotako ikasketei esker, neuk ere oinetakoak konpontzen ikasi dut eta gaur egun, zapatak saltzeaz gain, konpondu ere egiten ditut". Hori bai, Miguelek ez daki oinetakoak neurrira egiten, "hori ez dit irakatsi aitak. Zaila da eta, gainera, gaur egun inork ez du harrelako eskaerarik egiten. Jendeak nahiago du dendetan saltzen diren oinetakoak erosi, modakoak eta euren gustura egokitutakoak, kolore jakinekoak...".

Oinetakoen tapak dira batez ere konpontzen direnak, "fabriketatik datozen zapata askoren azpiko aldea eta takoia hutsak etortzen dira, edo plastikoz eginak, eta askotan labainkorrak dira. Hori konpontzera etortzen da jende asko, edo ondo jostera solte xamar daudelako...". Azken batean, zapatari onaren ezaugarri nagusia josteko gaitasuna da, "ondo jostea da lanik zailena. Badirudi edozeinek josi dezakeela oinetako bat baina behar



Miguel Merinok aitarengandik ikasi zuen ofizioa.

bezala josi eta zapata txukun lagatzea ez da lan erraza".

Lehen esan dugun bezala, zapatariaren ofizioak gainbehera egin du. Miguelen iritziz, "gaur egun jende askok kirolerako zapatilak kalean erabiltzen ditu. Oinetako hori ez da hainbeste izorratzen. Halere, gero eta gehiago jasotzen ditugu zapatilak. Hala-moduzko konponketaren bat egin eta gero, beherapenetan berriak erosteko aprobetxatzen du jendeak". Hori bai, zapatariarengana joateko ohitura helduek dute batez ere, "eta bereziki oinekin arazoak dituzten pertsonek. Hau da, askok eta askok oinetako parea oso gustura izaten dute eta pena da haiek izorratu zaizkielako berriak erosi beharra. Nahiago dute konpondu eta berdinekin jarraitu". Dena dela, Miguelek aitortu digunez, "artelana izaten jarraitzen duen arren, gaur egun makina berriak sortu dira eta horrek lana erraztu du".

## 50 urte zapata artean

Pauli Astigarragak 78 urte ditu eta 50 urte pasa daramatza zapata artean. Berez, jostuna dugu Pauli. Esan digunez, "nik neska mordo bat euki nitxun bordatzen ikasten, batez ere umientzako erropa txikixak itxen nitxun. Txominek, senarrak, neurrira itxen zitxun zapatak baina dendia ipini baino, nahixao zaban eskulanakin jarraitzia. Horregatik, neuk jostiari laga nion eta dendan hasi nitzan, Txomini laguntzen". 50 urte daramatza lanbide honetan Paulik eta kontatutakoaren arabera, "biharrak erakutsi dia neri zapatak konpontzen". Izan ere, urte luzez, egun osoa dendan zapatak saltzen egon eta gero, ixtean oinetakoak konpontzen ibiltzen zen, "gabeko 12:30ak arte egoten nitzan askotan. Makiniakin edo eskuz arregluak itxen eta, batez ere, tintiekin koloriak ataratzen". Jende asko joaten zen dendara esanaz oinetakoari kolorea aldatu, ilundu edo argitu nahi ziola eta zeregin horretan aritzen zen Pauli, "tinte mordo bat erabiliz bezeruak nahi zaban koloria atera arte. Asko etortzen dia ezkontzarako zapatak zuriegixak diazela eta nahixao dabela krema koloria, marfila edo holako zeozer. Soinekuan telian zati batekin etortzen dia eta ahalik eta berdinena nahi izaten dabe zapatia". Bizitza dendan, zapata artean pasa duela esan daiteke, "alaba dendan jaixo zan, atzeko aldian zakagun kuartuan". Bere hitzetan, "ni kalian baino gusturo egon izan naiz beti dendan. Oin ere, ahal doten denbora gehixen pasatzen dot hemen eta ondiokan tintiekin koloriak etamtzen ibiltzen naiz. Anbiente hau. gustatzen jata neri, jende artian egotia, danekin ondo Lan gogorra dela aitortu digu Paulik, "zapatarixana lan zaila da. Ondo jakin bihar da josten, ze gehixena eskulana da".

Deformazio profesionalaren ondorioz, "neuk ere badakat ohitxuria jendiari oinetara begiratzeko. Ezin dot ebitau, begixa juten jata". Halere, ez luke esango oinetakoaren arabera pertsonaren izakera nolakoa den jakin daitekeenik, "gaur egun modiak agintzen dau. Platatbrmia eta takoia, udan alpargatak... Gitxi gorabehera danak zapata tipo berdina eruaten dabe". Hori bai, zapata artean bizitzeak ez du tentazioan gehiegi eragin Pauliren kasuan. Izan ere, esan digunez, "nahiz eta zapata artian egon egun guztian eta modelo mordo bat ikusi, neu ez naiz sekula izan zapata pare asko ettkitzekua. Oin jantzitxa daukadazenak hiru urte dake eta oso gustura nabil eurekin. Koloriak eta modeluak eta... horri ez diot kaso asko itxen. Komodua eta negurako zapata fuertia izatia, hori da dana". Zapata kaxa artean laga genuen Pauli, gustura ikusten zitzaion.

**"Gaur egun modiak agintzen dau. Plataformia eta takoia, udan alpargatak... Gitxi gorabehera danak zapata tipo berdina eruaten dabe."**



Paulik eta bere senar Txominek bizitza osoa pasa dute zapatak saltzen eta konpontzen.

## ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN 20. URTEURRENA

# Zer iritzi duzu Konstituzioari buruz?



**MANU SANCHEZ**
38 urte, pilotoa

Nik uste dut erreformatu beharra dagoela, batez ere autonomiei begira. 20 urte eta gero garbi ikusten da hainbat puntu errebisatu egin behar direla.



**ANTONIO ESPIGA**
67 urte, jubilatua

Gauzak aldatzen ari direla dirudi baina hainbeste gauza daude aldatu beharko liratekeenak! Onerako bada, egokia iruditzen zait Konstituzioa aldatzea.



**NEREA LODOSO**
32 urte, irakaslea

Bidia agortuta dao eta batez ere Euskal Herrixari begira bada sasoia bide berrixak jorratzeko. Horren adierazgarTi da boto nazionalistak lortu daban gehiengua.



**ISABEL PEREZ**
59 urte, etxekoandrea

Nik ez dut gai hori ulertzen. Bizitza osoan saitu naiz nere etxea aurrera ateratzen eta nahikoa lan izaten da norberak bere familia gorbenatzen.



**M. ANGEL SANCHEZ**
37 urte, programatzailea

Konstituzioa aldatuz gero Euskal Herrian bakea lortuko balitz, primeran. Konstituzioak malgua izan behar du eta berritu beharra badauka, pausoak eman behar dira.



**ROSA M. GALA**
39 urte, CNC espezialista

Konstituzioa aldatu beharra ikusten bada, gaiari buruz hitz egin beharko litzateke eta herritar guztion onerako den bidea aurkitu.

IOSU
bitxidenda

Gurean egiten dituzun erosketengatik Gabonetarako eta Erregeetarako loteria oparituko dizugu.

APROBETXA EZAZU GABONETAKO OPARIA EROSTEKO!

SAN BARTOLOME, 4• TEL: 943 74 40 48 •ELGOIBAR
SANTA ANA, 22 TEL: 943 75 12 77 . SORALUZE

TXARRIDVISIA
Jatencea

cSanla Luzia eyunerai;o 122enu ijerezia
hililh 12

Makailo keztatua entsaladan
Thangurro otarra
Onddo hojaldrea

Rapea olio-ozpinetan edo
Entrekota piperbeltz saltsan

Trufa tarta
Etxeko ardoa edo ura

Ermuaranbide, 1 Tel: 943 74 04 90

# ISPILUARI BEGIRA



Iñaki Raigoso

**HERRIKO ANTZOKIKO arduraduna**

- Bizitza pelikula bat balitz, zein paper izan nahi zenuke?- Argazki zuzendaria izango nintzateke gustura.
- Nori kenduko zenioke bizitzaren pelikulan paper protagonista? - Bill esate baterako.
- Bizitza koloreetan, zuri-beltzean, koloreatua, deskafeinatua... nola ikusten duzu?- Koloreetan. Bizitza gustatzen zait.
- Pelikula mutuak ala musikalak? - Musikalak.
- Zein aktore ezagutu nahi zenuke? - Jean Reno frantsesa.
- Zinera palomitekin ala gabe? Gabe, zinera pelikula ikustera joaten naiz eta traba handia egiten dit inguruan jendea zerbait jaten eta zarataka egoteak.
- Zein pelikulatik atera izan zara amaitu aurretik?
- Tentatua egon izan naiz baina beti geratzen naiz amaitu arte.
- Birritan ikusi duzuna? - "La guerra de Ias galaxias".
- Bideoak zinea hilko al du?
- Ez. Zinea gauza bat da eta telebista beste bat.
- Zinean aurreko ala atzeko aldean nahiago?
- Beti lehenengo ilaran esertzen naiz. Pelikula ikustean burua mugitzea, soinua ondo entzutea, parte hartzea gustatzen zait. Atzean jarrita, ikusle soila zara.
- Zein pelikulako protagonsita izan nabi zenuke?
- "B I ade Runer"-ekoa.
- Negararazi zaituen pelikula?
- Ez dut inoiz negarrik egin pelikula bat ikusten.
- Eta zein pelikulatan egin duzu barre lehertu arte?
- Jim Carrey-ren edozein pelikulatan.
- Pelikula beldurgarri bat?
- Txikitan "Alien" ikusi nuen Odeoian. Astelehena zen eta zinean ia bakarrik nengoen, izututa egon nintzen.

Zure bizitza ikusiko bazenu zinean, zein unetan geratuko zenuke irudia? Eta noiz pasatuko abiadura bandian?
- Pasatako uneak iragana dira. Aurrera begiratzea gustatzen zait eta uste dut oraindik onena bizitzeko daukadala.
- Elgoibarko zein toki da egokia pelikula bat grabatzeko?
- Errosario kalean pelikula beldurgani bat grabatuko nuke.
- Zure logelan zein pelikularen kartela daukazu?

Horman bat ere ez, baina gordeta asko. Antzokiko kabina "Expediente X" pelikularen promozioko kartela dago.



*ESKERTZA*

*1998ko azaroaren 20an, 69 urte zituela hil zen*
*FRANCISCO JESUS CALVO PRECIADOren alargun*
*M" Cresen Egurrolak eta Inmaculada, Todor eta Amaia seme-alabek*
*bihotzez ESKERTZEN dituzte jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*L URTEURRENA*
*1997ko abenduaren 14an, 65 urte zituela hil zen*
*BENIGNO RAÑA PAZen oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan*
*larunbatean, hilak 12, arratsaideko 20:30ean.*
*Joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



## • GurasoenUako euskara ikastaro bereziak

Elgoibarko Udalak, herriko euskaltegiekin batera, gurasoentzako ikastaro bereziak prestatu ditu hizkuntza bat transmititzerakoan gurasoek duten garrantziaz ohartuta. Euskaraz konpontzeko arazorik ez dutenentzat, eta bereziki 0 eta 6 urte bitarteko umeen guraso euskaldunentzat antolatu dira. Bi ikastaro daude aukeran: urtarriletik aurrera, haurrentzako ipuinak kontatzen ikasteko ikastaroa, eta otsailean, haur jolas eta kantuei buruzkoa. Klaseen ordutegia aukeran izango da: arratsaldeko 14:45etik 16: I5era bitartean edo iluntzeko 19:00etatik 20:30ak arte. Ikastaro bakarra eginez gero, 4.000 pta. ordaindu beharko dira eta biak aukeratuta, berriz, 6.000 pta. Izena emateko Uda]eko Euskara Zerbitzura (943 74 43 66) edo herriko ikastetxeetara jo (Pilar, Ikastola edo Herri Eskola) abenduaren 18a baino Iehen.

## • GureanHal-ren euskara ikastaroak harrera ona izan du

Elgoibarko Izarrako *Gurean Bai* hitzarmenak antolatutako euskara sakontzeko ikastaroaren balorazioa "oso positiboa da" Abel Irizar *Gurean Baiko* teknikariaren iritziz. Herriko 10 entitatetako 25 lagunek hartu dute parte eta orokorrean "jendea oso gustura geratu da ikastaroarekin. Adierazgania da klaseetako aststentzla %84koa izan dela". Jesus Mari Makazaga, EHUko irakaslea eta Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko kidea dena izan da irakaslea. "Edukiak interesc=arriak eta irakaslearen azalpenak oso egokiak iruditu zaizkiela aitortu digute ikasleek. Azkenik, gehienak euskara sakontzen jarraitzeko prest agertu dira".

# Artazo baserria berriz altxatzeko jaialdi handi bat antolatu dute abenduaren 18rako

### Herriko musikari, dantzari eta elkarte ugarik hartuko dute parte



AHbenduaren 18an jaialdi handi bat izango da Herriko Antzokian joan den ekainean erre zen Artazo baserriaren alde. Ikuskizunean parte hartuko duten guztiak Herriko Antzokian elkartu ziren astearte iluntzean komunikabideen aurrean egitasmoa aurkezteko asmoz. Sallobenteko Jai Batzordea izan da asmo honen bultzatzailea eta eurek luzatutako laguntza eskariak erantzun zabala izan du. Udala, Musika eta Dantza Fundazioa, DEBEMEN, Elgoibarko Izarra, Haritz Dantzari Taldea, Ongarri Argazkilaritza Elkartea, Ikastola, Udal Txistulari Taldea, Duo Plaentxi, Haizea Emakume Taldea, Gelatxo soinujolea, Oihane eta Eneritz trikitilariak, Josu Mujika dantzaria, Herriko Dultzaineroak, Ziarda, Meabe, Loiola eta Armaitxa bert:olariak,... asko dira Artazoren aldeko konpromezua hartu duten herntarrak. Hauez gain, `Los Jaroehos' taldeak eta Armando Benito musikoak ere hartuko dute parte ikuskizunean. Ekitaldian, Gernma Monrealek kuadro bat oparituko die Artazo baserriko Juaristi-Soraluze familiakoei. Ikuskizunaz aparte, Edu Anillaga argazkilariak Artazo baserria erre ondoren ateratako argazkiak eta DEBEMEN Elkarteak lagatako Elgoibarko baserrien hainbat argazki jarri dira ikusgai Herriko Antzokiko sarreran. Astearteko aurkezpenera joan zirenek adierazi zuten bezala, "Artazo basenia ez da betirako desagertu, denon artean berriz altxatuko dugu. Horregatik, abenduaren I 8an Elgoibar osoak egon behar du hemen".

## BARRENekoak, Herri Komunikabideen III. Jardonaldietan

Joan den ostiral eta larunbatean, Arrasateko ARKOk antolatutako Herri Komunikabideen III. Jardunaldietan parte hartu genuen BARRENekook. Ezkerreko argazkian Imanol Larrañaga (hizlaria) eta Alberto Agirreazaldegi (aurkezlea) agertzen dira. Imanolek BARRENeko *Kalitate Kontralerako* metodologia azaldu zien gainerantzeko herri aldizkarietako ordezkariei. Izan ere, BARRENekoak aitzindariak gara kalitate kontrolaren gaian. Bestetik (eskumako argazkian), Maite Rementeria BARRENeko maketatzailea izandakoak, herri aldizkarien diseinuaren kritika egin zuen Arrasateko Goio Arana diseinatzailearekin batera. Itxurari eta edukiari buruzko kritika saioetan, BARRENi buruzko inpresioa ona izan zen orokorrean, eta "aldizkariaren itxura garbia eta edukiaren egokitasttna" aipatu zituzten batez ere.








## HIESaz hil direnei omenaldia

Errotatxo Drogomenpekotasunen Prebentzioaren Aldeko Elkarteak, Elgoibarren HIESaz hil direnak omendu zituen pasa den domeka eguerdian. 50 bat Iagun elkartu ziren Udaletxeko arkupeetan izara zuriaren eta lazo gorriaren bueltan. Haritz Dantzari Taldeko kide batek aurreskua dantzatu zuen eta Irati Agirremaldegik pare bat bertso kantatu zituen. Ondoren, aterrune bat aprobetxatuz, giza-katea egin zuten San. Bartolome eta Errosario kaleetan zehar. Hari beretik, asteartean (abenduak 1) HIESaren Nazioarteko Eguna ospatu zen. Herriko leiho eta balkoetatik lazo gorri ugari zintzilikatu ziren. Errotatxokoek paparrean jartzeko lazo gorriak banatu eta `seropositiboen eirejistroa'ren kontrako sinadurak jaso zituzten. Amaitzeko, 'errejistroa'ren kontrako kontzentrazioa egin zuten San Frantzisko iturriaren parean.

## Preso elgoibartarrak gogoan

Elgoibarko presoek 14 urte bete zituzten kartzelan joan den ostiralean (azaroak 27). Urtemuga hau gogoratzeko eta presoak lehenbailehen Euskal Herrira ekar ditzaten eskatzeko, Amnistiaren Aldeko Batzordeek Iñaki Jaio, Mikel Alberdi eta Ifiaxio Iriondo presoak omendu zituzten. Hauekin batera, preso dagoen Peio Ansola elgoibartarra ere gogora ekarri zuten. Euria gogoz ari zuenez, Udaletxe azpiko arkupeetan egin zuten omenaldia. Komunikatu bat irakurri eta Haritz Dantzari Taldeko kide batek aurreskua dantzatu ostean, bertan bildu ziren 5(} bat lagunak manifestazioan joan ziren San Bartolome kaletik beherantz.




## • Jostaluak biltzen ari da Gurutze Gorria

Elgoibarko Gurutze Gorriko Gazteen Taldeak jostailuak biltzeari ekin dio laugarren urtez segidan. Gabonak laster dira eta Elgoibarren badaude jostailuak erosteko aukerarik ez duten familiak. Biltzen diren jostailu guztiak Errege bezperan banatuko dituzte beharra duten herritarren artean. Hortaz, etxean baztertuta dauden jostailuak Gurutze Gorriak Aita Agirre plazan duen egoitzara eraman behar dira lehenballehen. Apur bat puskatuta edo zahartuta dauden jostailuak ere balekoak dira.

## • EGINen aldeko txosna Mendaroko Kontzesio azokan

Abenduaren 5ean, Mendaroko Kontzesio azokan, EGINen aldeko `Egingo Dugu' plataformak txosna jarriko du taloak, gaztain erreak etab. salduko dituztelarik. Tabernaz gain, etxeko produktuen erakusketa eta salmenta ere izango da. Bestalde, Mendarori dagokion diruaren zati bat jasota badago ere, falta dena azoka egunean batzea espero dute plataformako kideek. Norbaitek dirulaguntzarik eman nahi badu, Mendaroko Kutxako buiegoan irekita dagoen kontu kon̄ontean egin dezake.

## • Isolamendu Sistemei buruzko ikastaroa

Udaleko Gizarte Ongizate Sailak aditzera eman nahi du abenduaren 14an Isolamendu Sistemei buruzko 300 orduko ikastaroa hasiko dela. 18 urtetik gorakoa izatea eta lesio edo bertigorik ez edukitzea eskatzen zaie ikastaroan parte hartu nahi dutenei. Ez da beharrezkoa gaiari buruzko ezaguerarik edukitzea. Izena emateko 94 620 04 49 telefonora deitu hilaren 14a baino lehen.



## Agur Alkortako telar zaharrari

Aurreko astelehenean ekin zion Zubiri enpresak Bernardo Ezenarro kalean zegoen telar zaharra botatzeari. Honekin batera, Ermuaranbie kaleko etxea ere (Errezabal edo PolIeria) botatzeko asmoa dago eta lur hauetan etxeak erakiko dituzte. Proiektuari `Madala ' izena ipini diote. Terrenoak Zarautzko Amenabar kOnstruktorak erosi ditu eta, itxura denez, zenbait etxe salduta omen daude dagoeneko.

# Sigmaren salmentari buruz eztabaidatu zen plenoan

## HBk mozioa aurkeztu zuen Sigma lur publiko izateko eskatuz, baina atzera bota zen

*Ostiralean (azaroak 27) izan zen plenoan Udaletxeko mailegua, Eguneko Zentroa eta Sigma izan ziren gai nagusiak. Azken astean Sigmaren gaiak izugarrizko abiada hartu du eta hainbat hilabetetan aurrera-pauso nabarmenik eman gabe egon eta gero, astelehenean bertan subastara atera ziren terrenoak. Gaiaren garrantzia kontuan izanik, HBk mozioa aurkeztu zuen.*

Herri Batasunko kiklea den Pello Mendizabalek azaldu zuenez, "azken bi urteotan behin eta berriz azpimarratu dugu Sigma lur publiko bihurtzeak duen garrantzia. Elgoibartarrentzat izan behar du Sigmak eta gero, beharra badago, egingo dira ekimenak Albitxuri bezalako guneak lur industrial izateko". IU-EBko Ausin eta EAko Senosiain bat etorri ziren MendizabaIekin, "esku pribatuen esku laga gabe, lur horiek publikoak izan behar dute", adierazi zuten.

Halere, Gillermo Garate alkatearen hitzetan, "ados gaude planteatutakoarekin eta guretzat ere Sigma lur publikoa izan beharko Iitzateke baina, zoritxafreZ, ez da izango, Eusko Jaurlaritzak ez baitu horretarako asmorik azaldu. Gure esku zegoen guztia egin dugu eta une honetan (ostiralean, azaroak 27) badakizue astelehenan (azaroak 30) izango den subastan proposamen bat aurkeztu dugula gaur egun Sigmako lokaletan errentan dauden hainbat enpresekin batera. Eusko Jaurlaritzak esan digu gure proposamena babestuko duela eta espero dugu Aldundiak beste horrenbeste egitea. Ondo aterako balitz, gestioa SPRI-LUR-en esku geratuko Iitzateke".




*Udaletxean esan digutenez, oraindik ez da egin Sigmako lurren satmentaren adjudikazioa.*

Bozketan, HBren mozioak EA eta IU-EBren aldeko botoa jaso zuen baina EAJ-PNV, PP eta PSEren kontrako botuekin atzera bota zen.

**Kredituak**

1998 urteko udal aurrekontuen kitapena egin eta gero, 101.850.759 pta.ko kreditua onartu zen azken plenoan. Honen inguruan EAk azaldu zuenez, "kopuru horren baitan Musikeskolaren egokitzapenerako 50 milioiko partida dago aurrikusita. E.spero dugu aurretik behar bezalako proiektu bat aurkeztu eta beharrezkoa den ala ez erabakitzea". HB kontra azaldu zen, "urte hasieran aurrekontuen kontra azaldu ginelako". Isaak Loiolak, EAJ-PNVren izenean hitz egin zuen esanaz, "gastu arrunta kotrolatua" dagoela eta "inbertsioak, esate baterako, 1,9 milioi pta.n igo direla". Bozketan, HBk ezetz botatu zuen, PP eta IU-EB abstenitu egin ziren eta gainontzekoek alde botatu zuten.

(Sal2th huzia e unerao inenti gerezia

Men ucz

Era askotako entremesak
Marisko krema
Legarz albardatua
Solomiloa
Postre sorpresa
Errioxako ardoa
Ura eta ardoa

ESTAlf0 MEEZNA
SAN INAZIO, 9 • 943 74 45 34
dlot



HEIMMOS&
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

* 1DAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
* MULTIKOPISTAK
* FOTOKOPIADORAK
* PLANOEN BIRREGILEAK
* ERLOJU INDUSTRIALAK
* MARRAZKETA MATERIALA
* INFORMATIKA
* FAX

POL-POL
TABERNA
San Bartalome, 19 - Tel: 943 74 08 74

# ARKAITZ EGAÑA:

## "Sufritxu itxen da harrijasotzen baina gustura ibiltzen naiz"

*7 urteko unze koskorra zela jaso zuen estreinakoz egurrezko harri bat Arkaitz Egañak. Mintxeta baserriko 15 urteko gazte honek etxean betidanik ikusi du herri kirolekiko zaletasuna. Izan ere, aita trontzalaria du eta osaba harrijasotzaileak entrenatzen ibiltzen da, horien artean Egi elgoibartar ezaguna. Harri txikiarekin ibiltzen da Arkaitz, 100 kiloko pisua duen "harri txikiarekin".*

- Izkutuan jaso al zenuen zure lehen harria?

- Seguruena bai. Tio ikusten naban eta nik ere zeozer in nahi nabala eta, egur zatixak altxatzen hasi nitzan. Gero, egun batian, tiori esan nion gustatzen jatala eta aitxak indako egur batekin hasi nitzan entrenatzen. Zazpi urte inguru nakazen.

- Teknikaren bat al dago?

- Ez dakit ba. Altxatzeko moduan hartu bihar da harrixa, bueltak ematen.

- Zilindroa, kubikoa...

- Bai, asko daude. Errezena zilindrua da, kubikua erdikua eta zailena bolia.

- Gaur egun zenbat kilo altxatzeko gai zara?

- 50 kilo. Gehixo ere jasotzeko kapaza naiz baina poliki jun bihar da, ze bestela arazuak egoten dia bizkarrian. Nik astian behin entrenatzen dot, eta hasi aurretik eta amaitxutakuan beti luzamenduak in bihar dia, tiroirik ez emateko. Besuak eta belaunak asko nekatzen dia. Sufritxu itxen da baina ni oso gustura ibiltzen naiz.

- Gogoan al duzu noiz aritu zinen lehen aldiz jendautrrean?

- Bai. San Rokeko jaixetan 9 urte nakazela. Nere aitxak indako egur zati bat jaso naban, 20 kilo ingurukua. Nerbioso nauan, ze jendia aurrian eukitzia diferentia da, baina gero eta trankilo egoten naiz, ohitzen nixe.

- 300 kilotik gora omen dago errekorra.

- Bai, Saralegik daka crrekor hori. Baina bi maila daude harrijasotzailien artian. Batetik harri txikikuak, 100 kiloko harrixa altxatzen dabenak. Bestetik, 300 kilotik gorakuekin ibiltzen diazenak. Ni harri txikixakin ibiltzen diazenen mailan sartuko naiz.

- Gainbehera dagoen herri kirola al da?

- Berutz dixe, ze ni hasi nitzanian entrenatzen mordua zeuden eta oin gero eta gitxio. Jendia ez da ikustera juten eta poliki-poliki galtzen dixe. Haia ere, badaude nere edadeko beste pare bat mutil eta hori onerako da.

- Saltsa sortzeko, ezta?

- Bai, girua sortzeko eta pike sanua egoteko. Ikustera juten dan jendiak nahixao dau lehia ikustia oso errez irabazten dahan bat baino. Horrek sortzen dau benetako anbientia herri kiroletan. Harri txikixakin *Zelai* da txapeldunen artian txapelduna eta zaila izango da haren mailara ailegatzia.

- Gaztetasuna duzu zure alde.

- Bai, hori bai. Batzuek bestiei lagako diue tokixa.

- Arreba txikia duzu. Bera ere aritzen al da herri kimletan?

Ez, neri harrijasotzia eta ehizia gustatzen jatazen hezela, berari futbola gustatzen jako.





# Mendaroko IV. Kontzesio Azoka bihar, abenduak 4

*Aurreko batean azaldu genuen bezala, azaro eta urtarril bitartean hainbat eta hainbat azoka izaten da Deba Behean. Joan den astelehean, hain justu, Eibarko San Andres feria izan zen eta bihar, abenduak 5, IV. Kontzesio Azoka izango da Mendaron.*



Abenduko lehen larunbatean izaten da heti Kontzesio azoka, aurten laugarren aldiz .egingo dena.

Dirudienez, g4.trai batean, Deba Beheko azokarik garrantzitsuena Mendaroko Trinidade ennitaren inguruan izaten zen. Gero, ohitura hori galdu eta urte luzez Mendaron ez da sekula feriarik egin izan. Baina 1994an berreskuratu zen, Kontzesio izenarekin bataiatuz..

Goizeko 9:00etatik aun-era hasiko da jendea Mendaroko pilotaleku inguruan kokatuko den azokara hurreratzen. Urtero bezala, aurtengo edizioan ere nekazal produktuak, artisautza, ganadua eta hegaztiak izango dira ikusgai eta erosgai. Erakustoki bakoitzean baserrian edo etxean bertan landutako produktuak egongo dira aukeran. Honen haritik, Joseba Etxeberria antolatzaileetariko batek azaldu digunez, "ezinbesteko baldintza da norberak landutako produktua izatea.





**31 erakustoki**

Aurten nekazal produktuak salduko dituzten 14 baserritar izango dira Kontzesio azokan, horietatik bi mendarotarrak eta beste bi elgoibartarrak (Zabaleta eta Txillarre). Artisautzari dagokionean, 9 saltoki egongo dira, besteak beste, keramika, beira, egurrezko erlojuak, otarrak, lora zikuak eta abar. Eta, hau guztiaz gain, ganadua eta hegaztiak ere izango dira ikusgai: ardiak, zaldiak, behiak...



*Gozogintza, barazkiak, gazta, zaldiak,... denetik izango da ikusgai Mendaroko ferian.*

**Bertso bazkaria**

Goiz parte osoan, eguerdiko 14:30ak arte egongo da irekita azoka. Udalak jarritako txoznan salda, txorixoa eta ardoa doan banatuko dira inguratzen diren guztien artean. EGIN egunkariaren alde 'Egingo dugu' plataformak ere txosna jarriko du. Aunen, lehenengo aldiz, megafonia jarriko da pilotaleku inguruan, giroa alaitze aldera eta eguerdian, hurreratzen diren baserritar eta herritar guztiek jaia jarraitzeko aukera izan dezaten, bazkaria izango da Arboleta jatetxean Egafia, Peñagarikano eta Mañukorta bertsolariekin.

# ATXURI baserria

*1.500 urtetik daude jasota Atxuri baserriari buruzko datuak. Garai hartan "Villa de Atxuri" izenez ezagutzen zen eta Maribel Bastidak esan digunez, aita, aitita, birraitona,... guztiak bizi izan dira Mendaroko baserri honetan. Bihar, hilak 5, Kontsezio azoka izanik, behingoagatik Mendaroko baserri bati buruzko datuak emateko lizentzia hartu dugu.*




4 4Elurtuta dao hemen dana!", esan zigun Maribelek asteartean deitu genionean. Izan ere, Atxuri, Mendaroko baserririk altuena da eta garai batean, Mendaro EIgoibarko auzoa zenean, Elgoibarko baserririrтаrik altuena izan zen. Horregatik, ez da harritzeko kalea zuritu aurretik, Atxuriko teilatuan elur malutak jaustea. Goizean goiz jaiki eta baserriko lanei ekiten diete Atxurikoek. Izan ere, senar-ematea baserritik bizi da eta Jose Mari ganadua gobernatzeaz ardumtzen bada, Maribelek badu nahikoa lan etxeko lanak egin eta bazkaria prestatzen. Etxean, ortutik jasotako barazkiak jaten dituzte, "lan haundiegixa da produkzio asko euki eta saltzen ibiltzia". Izan ere, aurten ardi batzuk saldu egin dituzte, "senarrak mokorrian problemia daka eta ezin danera ailegau". Orain arte gazta egin eta saldu egiten zuten. "Ferixa askotan ibiltxikauak gera eta Mendarokua txikixa baina benetan politxa da, batez ere giro ona itxen badau. Gainera, Mendaron geu izaten ginan gaztaia saltzen bakarrak eta oso ondo saltzen zan. Ez da Elgoibarren bezela, elizako arkupe guztia gazta saltzailez beteta egoten da eta gitxio saltzen da".

**Nekazalturismoa**

Atxuri, urteen eraginez, gainbeheran etorrita zegoen, "orduantxe hartu bihar izan gendun erabakixa, berritxu edo erortzen laga". Horrela bada, 1994an, Eusko Jaurlaritzak ematen zituen dirulaguntzak aprobetxatuz, Atxuri baserria eraberritu eta nekazalturismoa jarri zuten. "Gaur egun, 6 logela, 5 komun eta sukaldia dakagu. Hau da, nahi dabanak aukeria daka sukaldia bere kontura erabiltzeko". Maribelek esan digunez, urtean zehar ez da jende gehiegi ibiltzen, "zubixa danian, jaixetan, Aste Santuan eta oporretan ibiltzen da jendia. Oin, esaterako, Gabonzahar egunerako 14 lagun datoz, Valentziako familixa bat dia eta urte zaharra Euskal Herriko baserri baten pasatzia nahi dabe, hemengo ohitxurak biziz. Gurekin afalduko dabe gaba horretan".

Maribel hiru ahizpen artean zaharrena da. "Ni geratu nitzan baserrixan. Ordura arte Bastidatarrak izan zian hemenguak baina oin Urangatarrak dia nagusi". Ez daki bere semealabek baserrian jarraltuko duten ala ez, "problemia ez dia eurak, euren parejak baizik. Ez da erreza baserrira bizitzera etorri nahi daban bateron bat topatzia". Edozein modutan, Maribelek garbi du, "ni ez nintzake ezta Donostiko Hotel Londresera ere jungo. Hemendik itsasua ikusten da. Zer gehixo bihar dot, ba?".

## Isabel Preysler-en inhidiarik ez

Maribelek gogoan dauka Atxurin ez bide, ez telefono ez argirik ez zegoen garaia. "Oinez juten ginan Madarixaraino, eskolara, hiru kilometroko bidia inda. Baina, 9 urte nitxuala ama hil eta baserriko lanez arduratu biharra nakanez, ahal nabanian juten nitzan". Gauzak asko aldatu dira, zentzu guztietan. "Gure baserrixa ederra da, ez dao ez zaharra ez apurtuta. Isabel Preysler horren etxian inbidixarik ez daka. Guria bai dala rebistetan etaratzeko modukua!".

## ATXUR1

**Auzoa:** Garagartza (Mendaro)

**Bizilagunak:** Jose M. Uranga. (53 urte), Maribel Bastida (42 urte), Juanjo Uranga (24 urte), Nerea Uranga (22 urte) eta Andoni Uranga (20 urte).

**Lur hedadura:** 60 hektarea.

**Esplotazioa:** 7 behi, 19 ardi, behorrak, zaldiak... Honez gain, 1994 urtetik nekazalturismo baserria da Atxuri.

# gabonak



Noiz: Abenduak 24-28-29-30-31

Ordutegia: Goizeko 10:00etatik 13:00etara

Norentzat: Eskolaurreko 3. maila eta LHko 1-2-3. mailak

Zer egingo dugu:

Olentzerori ongi etorria eman,
Eibarko Gabonetako Parkera irteera (TXIKI GUAY),
Pailazo ikuskizunera joan...

Prezioa: 2.000 pta.

Izena emateko: abenduaren 14tik 18ra

Elgoibarko Izarra K.E. [Ubitarte 4, beheaj Tel.: 943 74 16 26

Antolatzailea:

Laguntzaileak:

---

# KULTUR ERROTA KULTUR ERROTA KULTU

21:00etan

2. saioa

## Tapia eta Leturia




500 pta.

larunbata

KULTUR ETXEKO SOTOAN

TOPAGUNEA

*Anzaia Unamuno Soraluzekoa da baina makina bat urte daramatza Ikastolan ingeles irakasle gisa. Aste honetan guregana ekartzearen arrazoia, ordea, Rita Zabala eta biek azken 4 urteotan haurrei ingelesa irakasteko darabilten metodo berritzaileak jaso duen saria izan da. Medrileko Hezkuntza eta Kultura Ministeritzaren Esperanza Agirre ministrariaren eskutik jaso zuten 1998ko Zigilu Europarra.*

# "Haurrak desiatzen daude ingeles klasera joateko"

AMAIA Unamuno

**—Zer esan nahi du sari honek?**

Errekonozimendu haundia. Lan haundia eta sakona egin da proiektu hau aurrera ateratzeko eta jende asko egon da inplikatua. Gainera, froga modukoa izan da. Lehenik, lana antolatu eta prestatu behar zen eta gero, haurrekin praktikan jarri metodoak funtzionatzen zuen ala ez jakiteko.

**—Zertan datza tnetodologla hau?**

Hizkuntza bat nola irakatsi zen kezka nagusia eta metodologia klasikoaren gramatika eta testu bidezko irakaspena ez zen efektiboena eta erakargarriena. Hizkuntzalari batzuen ustez, hizkuntza jasotzea errazacroa da komunikatzeko helburua edo gogoa baldin badago. Gainera, hizkuntza erabiltzen den heinean ikasten da. Horretarako, beharrezkoa da elkarkomunikatzeko kontestu edo esparru bat izatea. Eta metodologia honek kontestu hori sortzen du antzeztutako istorioen bitartez. Haurrek istorioak ingelesez antzeztuz komunikazioa lantzen dute.

**— Non dago jatorria?**

- Euskal Herrian, 91-92 ikasturtean ikastola gutxi batzuetan jarri zen martxan eta gurea bigarren ikastetxea izan zen. Lau eta sei urte bitarteko haurrekin *Artigal* izeneko metodoa erabiltzen da, izen bereko kataluiniar hizkuntzalariak sortua. Adin nagusiagoko haurrekin Europako *Erasmus* proiektuak landutako metodoa erabiltzen da. *Erastnus* barruan daude Hoianda, Ingalaterra, Italia eta Euskal Herriko ikastolak eta proiektu bateratu hau izan da saritu dutena.

**— Aurrerakuntzarik nabari al duzue?**

- Lehen, ingeles apur bat jakin arren, ez ziren ausartzen erabiltzera. Orain, aldiz, naturalki ateratzen zaie, lotsarik gabe. Ulermenari dagokionez ere, asko aurreratu da eta hizkuntza eta irakaslea identifikatu egiten dituztenez, sekula ez zaizkigu ingelesa ez den beste hizkuntza batean zuzentzen. Keinuz, hitzez edo esaldi laburrez baliatuko dira nahi dutena adierazteko.

**- Material berezirik erabiltzen al duzue?**

- Bai, batez ere guk sortu behar izan dugu istorio edo ipuinetarako beharrezko materiala: irudiak, abestiak, muralak, eskenatokiak... Guk, gelan bertan argumentu bat ingelesez antzezten dugu hiruzpalau aldiz errepikatuz, eta haurrek, hitz guztiak ez ulertu arren, badakite istorioa zeri buruzkoa den. Istorioa biziz, hitzak eta esaldiak barneratzen dituzte. Ondoren, irudietara pasatzean, barneratu dutena ingelesez adierazteko gai dira.

**Zein da haurren jarrera?**

Oso pozik joaten dira klasera. Beraientzat oso gustukoak diren ekintzak egiten ditugu: interpretazioa, dantza, muralak... Desiatzen daude klasera joateko.

**—Irakasleok heziketa berezirik jaso al duzue?**

- Bai. Batetik, metodo honen filosofia ulertzeko eta bestetik, nola antzeztu, zein jarrera izan, kokapena, ahotsa, narrazio teknikak eta abar landu ditugu. Filosofia ulertzea garrantzitsua zen, lehenak baikinen praktikan jartzen.

**Asier Orbea**

*EESTEEK ESANA*

**"Bere lana bizitasunez eta alaitasunez hartzen du, beti ikasteko prest dago" RITA ZABALA lankidea.**



# AZAROAN

• • • JAIOTAKOAK • • •

- Nerea Martinez Larrafiaga (Azaroak 3)
- Javier Oregi Etxabe (Azaroak 3)
- Lorea Hidalgo Aranbarri (Azaroak 6)
- Iñigo Arberas Arrese (Azaroak 11)
- Maialen Egia San Martin (Azaroak 18)

• • EZKONDUTAKOAK• •

- Erik Galparsoro eta Patricia Arrillaga (Azaroak 28)
- Roberto Oteo eta Nekane Bastida (Azaroak 28)

• • • HILDAKOAK • • •

- Bernardo Jurado Aguilar, 76 urte (Azaroak 4)
- Lino Baddlo Avelino, 59 urte (Azaroak 6)
- Iñaki Etxezarraga Bilbao, 71 urte (Azaroak 7)
- Josefa Ariznabaneta Arozena, 69 urte (Azaroak 8)
- Jose Maria Marmol Cañas, 56 urte (Azaroak 9)
- Ramon Trucios Arostegi, 64 urte (Azaroak 10)
- Sebastian Arrillaga Larrañaga, 79 urte (Azaroak 12)
- Francisco Jesus Calvo Preciado, 69 urte (Azaroak 20)
- Rosario Martinez-Toledano Alvarez, 85 urte (Azaroak 24)
- Fulgencia Agirregomezkrota Arrillaga, 77 urte (Azaroak 27)
- Jose Angel Mendizabal Etxabe, 83 urte (Azaroak 28)

# abdulia Gmez Canales

## (1889-1963)



• 1886ko azaroaren 26an jaio zen, Bustablado de la Montaña herriko goi mendiko basen̄i batean, Santanderren. Hamabi anai-arreba ziren, zazpig,arrena bera.
• Obduliak *ez* zuen eskola ikasteko aukerarik izan. Dirurik ez zutenez, mezatant hanka-hutsik joaten zen. Arkupean abarkak jantzi, meza entzun eta ben̄iz baserrira, abarkak. besapean.
• Ez zuen argi elektrikorik ezagutu baserrian. Beti kandelekin edo karburoarekin. Baserriko lanak egitea oso nekosoa zen, toki aldapatsuan zegoen eta.
• Koxkortu arte, ganadua, ahuntzak, zaldiak eta baserriko abereak zaintzen jardun zuen. Nahiz eta igandea izan, berdin-berdin egiten zuen lan, erromeriara joateko aukerarik gabe. Bizimodu sofritua eta gogorra tokatu zitzaion.
• 16 urterekin zerbitzari hasi zen Bilbon. Hemen ezagutu zuen bere senarra, Valladolideko Gregorio Martinez, Sestaoko Altos Hornos-en lan egiten zuena. 24 urterekin ezkondu zen Obdulia eta 7 seme-alaba izan zituzten.
• Antonio Arrillaga mediku jaunak ekarri zuen senarra Forjas de Elgoibar tailerrera lanera, eta berarekin batera familia osoa etorri zen.
• Obduliak, hen̄iko lan-ohiturak agintzen zuen bezala, erropa mordoa garbitu zuen errekan, nahiz eta izotz handiak egin. Gaixo txarrak hartzen zituen etxeetan ere, lana gogoz egiten zuen. Benetan emakume ausart, langile eta begirazun serioko hau gogor saiatu zen familia aurrera ateratzeko. Beti zegoen lanean.
• Sinesmen handikoa, borondatezkoa, Elgoibanen ezaguna eta zerbitzari ona zen. Bere semea, Primitivo Martfnez, Morkaiko Mendizale Elkartean nabarmendu zen.
• Merito handiko emakume hau I 963ko ekainaren 20an hil zen 77 urterekin.

Juanito Gorostiza




ETXEBERRIA
Hileta zerbitzu
OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK *r* TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.
Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01






Aste honetako erretratu zaharra ez da ohi bezalakoa. **Ongarri Zine Klubeko kideen eskari bati erantzunez, Euskal Filmategitik eskuratutako** argazkiak dira honakoak. Izan ere, abenduaren 17an, Euskal Filmategiko bi pelikula emango dituzte Ongarrikoek zine klubean. Pelikula hauek Euskal Henian egindako estreinako filmeak dira. Argazki bertikala Iparraldeko bi zinegilek 1930ean filmatu zuten `Au Pays des Basques' pelikulari dagokion kartela da. Euskal Herriari buruz egindako lehenengo entzunezkoa kontsideratzen da. Mendiak, kostaldea, artzantza, Ezpeleteko ganadu feria, gaztagintza, etab. erakusten ditu.

Beste argazkia, `El Mayorazgo de Basten̄etxe' pelikulari buruz prentsan atera zen artiku]uarena da. Bilboko Mauro Azkonak filmatu zuen 1928an eta Aizkorri inguruan gertatzen den istorioa kontatzen du joan den mendearen erdi aldera. Hiriburuko eta baserriko giroa erakusten dituen pelikula honetan denetik gertatzen da: iruzunak, hilketak,...



***ESKERTZA***

*1998ko azaroaren 27an, 77 urte zituela hil zen*
*FULGENCIA AGIRREGOMEZKORTA ARRILLAGAren*
*sendiak bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



***ESKERTZA***

*1998ko azaroaren 28an, 83urte zituela hil zen*
*JOSE ANGEL MENDIZABAL ETXABEren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

# Van der Wiel holandarrak irabazi du Nazioarteko VIII. Xake Txapelketa

## Herriko haurren xake txapelketan 27 neska-mutilek hartu dute parte





### Nazioarteko VIII, Xake Txapelketa • sailkapena

1- J. Van der Wiel (7 puntu)
2- Felix Izeta (6 puntu)
3- Oleg Korneev (5,5 puntu)

Haurren Xake txapelketa

❑ Benjaminak:
1- Maitane Moreda (2,5 puntu)
2- Elisabeth Pedrera (2 puntu)
3- Jon Rodriguez (puntu 19

❑ Alebinak:
1- Aitor Arrillaga (10 puntu)
2- Aitor Hermindez (7 puntu)
3- Josu Abad (7 puntu)

❑ Infantilak:
1- Javier Ausin (11 puntu)
2- Iker Astigarraga (8 puntu)
3- Carlos Feijoo (8 puntu)

Aurtengo Nazioarteko Xake Txapelketako irabazlea John Van der Wiel holandarra izan da. Azaroaren 2letik 29ra bitartean jokatu da txapelketa eta holandarrak ez du txanda bat bera ere galdu. Ubilava georgiarra gogor eta gogoz hasi bazen ere, egunak aurrera joan ahala, planak eta asmoak okertzen hasi zitzaizkion. Felix Izetak, aitzitik, partehartzaile guztien artetik puntuazio kaxkarrena zuen jokalariak, bigarren postuan amaitu du. Zubi-Ondo Elkarteko Tomas Condek adierazi bezala, "berdinketak izan dira nagusi aurtengoan. Hori ba, berdinketak desegiteko lan handia egin behar izan dute denek". Horrela bada, azkenean txapela Holandara joan da (Van der Wiel, 7 punturekin). Bigarren postuan Felix Izeta euskalduna (6 punturekin) geratu da eta hiruganen lekuan Oleg Korneev errusiarra (5,5 punturekin). Sari banaketa ekitaldia domeka gauean (hilak 29) izan zen Kultur Etxeko hiltzadi gelan, txapelketa amaitu ondoren, hain zuzen. Sariak banatzen Gillermo Garate alkateak eta Euskadiko Xake Federazioko presidenteak eta presidenteordeak jardun zuten.

Ekitaldi berean, herriko haurren artean jokatutako Xake Txapelketako sariak banatu ziren. 27 neska-mutilek hartu dute parte aurten eta Tomas Condek adierazi bezala, "urtetik urtera bai partehartzeak eta bai kalitateak ere onera egin dute. Datorren urtean beste horrenbeste edo gehiago izatea espero dugu". Goiko taulan, txapelketa bateko zein besteko sailkapena.

## ES K@LARTEKG KIROLAK

**EMAITZAK** Azaroak 28 7. .ardunaldia

SASKIBALOIA

■ Benjamin mutilak ■
Herri Eskola A 2- Ikastola B 24
Pilar A 14 - Mendaro A 4
Pilar B 6- Herri Eskola B 0
Ikastola A 6- Ikastola C 10

111 Benjamin neskak ■
Ikastola A 0- Inar Al2
Ikastola B 12 - Ikastola C **6**

ESKUBALOIA

■ **Alebin** mutilak 11
Pilar A **9** - Deba Urdinak 3
Herri Eskola 10 Pilar B 0
Mendaro B 7- Ikastola A **B**
Jauja B 6- Deba Gorriak **8**
Jauja A 6 Deba Berdeak 10
Ikastola B 11 - Mendaro A **9**

• **Alebin neskak** ■
Ikastola A 6- Ikastola C 12
Ikastola B 4 Pilar A 4
Jauja D 2- Pilar B 7
Deba Horiak 5 Jauja E **14**

FUTBOLA

111 **Infanlil mutilak** ■
Pilar B 3- **Deba 1**
Pilar A 5 - Insti A 1
Ikastola 0- Insti B 1

■ Infantil neskak **ol**
lkastola A 2- Insti 0
Mutriku 1- Pilar B 11
Ikastola C - Ikastola E 4
Ikastola B 0- Pilar A 14

## KIROL ALBISTEAK

### • Morkaikoren argazki leldaketa

Morkaiko Mendizale Elkarteak III. Argazki Lehiaketa prestatu du. Mendizaletasunarekin lotutako argazkiak izan behar dira, neurri librean, koloreetan zein zuri-beltzean. Lehiakide bakoitzak 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez eta entregatzeko epea abenduaren I 8an amaituko da. Elgoibartarrek eta Morkaikoko bazkideek izango dute parte hartzeko aukera.

### • Gabonetako Kudrilarteko Txapelketa

Abenduaren 2letik 31ra bitartean jokatuko da Udal Kirol Patronatuak antolatutako VIII. Gabonetako Kuadrilarteko Txapelketa. Urtero bezala areto futbola, saskibaloia, pala, krosa eta txirrindularitzan arituko beharko dira partehartzaileak. Izena emateko azken eguna abenduaren 16a da (943 74 44 15). Kuadrila bakoitzak 5.500 pta. ordaindu behar ditu.

# Elgoibartarrak Donostiako Erdaratolan

Argazkian lau baino agertzen ez badira ere, jakin badakigu 8 edo 10 herritarrek hartu zutela parte aurreko domekan izan zen Donostiako maratoian. 42 kilometro izaten dira Donostiako kaleetan zehar egin beharrekoak eta esan digutenez, "dauan pruebarik gogorrena da". HaIa izango den dudarik ez dago, Behobia-Donostia maratoi erdian 70 bat elgoibartar izan baitziren eta maratoian berriz, ez dira l0era iristen. Partehartzaile guztien markak ez ditugu inguratzerik izan, baina hona hemen lortu ditugunak:




## Donostiako Maratoia

1- Tomas Arrieta 2h56'
2- Jose M. Fernandez 2h58'
3- Iñigo Etxaniz 3h03'
4- Juan Fernandez 3h12'
5- J. Felix Iglesias 3h20'
6- Iñaki Izagirre 3h25'
7- Imanol Larrañaga 3h42'
8- Javi Iriondo 3h43'



## Nicolas JImenez, Gipuzkoako karate txapelduna

Olaizaga Kirol Taldeko bi kidek, Nicolas Jimenezek eta Kristian del Rio-k, Gipuzkoako Karate Txapelketan parte hartu zuten joan den domekan Hernanin. Juniorretan eta 75 kiloz azpiko mailan, Nicolas Jimenez-ek (argazkian) txapela eskuratu zuen komite (borroka) delako atalean. Kata edo teknikan, berriz, txapeldunordea izan zen. Elgoibartarrak ez zuen modalitate honetan irabazterik izan baina txapeldunak hamarreko baten aldea baino ez zion atera. Bestetik, kadeteen mailan, Kristian del Rlo gogoz aritu zen eta komite atalean hirugarren postua lortu zuen.

# KIROL ALBISTEAK

### • 30. Xake Tkapelketa Herrikoia

Abenduaren 5etik 8ra bitartean, herriko xake-zaletuen 30. Xake Txapelketa jokatuko da Zubi-Ondo Elkarteak antolatuta. Elkarteak Juan Mugerza kaleko 26 zenbakian duen egoitzan izango da txapelketa eta suizar erara (7 errondatara) jokatuko da. Hiru kategoria egongo dira: infantilak, jubenilak eta seniorrak. Larunbatean, hilak 5, goizeko 11etan infantilen norgehiagoka hasiko da eta hilaren 6an, domeka, arratsaldeko 16:00etan, jubenil eta seniorrena. Txapelketan parte hartu nahi izanez gero, abenduaren 5a baino lehen harremanetan jarri 943 74 32 99 (Patxi Agea) edo 943 74 34 29 telefonoetara (Tomas Conde) deituta.

### • Ibai Kirol Elkarteak urrezko 8 domina lortu dilu

Ibai Kirol Elkarteko zenbait taldek, joan den hilaren 22an Kluben arteko judo -torneoan hartu zuten parte. Ibaikoak ederki aritu ziren, 20 domina lortu baitzituzten. Urrezkoak 8 izan ziren: Maialen Mora, Zuriñe Polo, Ana Estevez, Aitor Mugerza, Jon Ander PascuaI, Josu Tellabide, Borja Ortiz de Urbina eta Alberto Arberas. Zilarrezko dominak 6 izan ziren: Miriam Arosa, Fernando Pazmiño, Aitor Gonzalez, Iñigo Nrez, Danel Mendibil eta Aitor Arosa. Azkenik, Maria Idiakezek, Roberto Pazmiñok, Unai Fernandezek, Haritz Arribillagak, Josu Rodriguezek eta Jokin Aizpitartek brontzezko domina Iortu zuten.

## MILITZAK

**Futbola**

**Haundi** 0 - Calahorra **2**
Antoniano **2-** Elgoibar 1 (1. **erreg.)**
Pedrusko 5- Zestoa **1 (2. erreg.)**
Anaitasuna 0 - Elgoibar **0 (L. N. jub.)**
Elgoibar 0- Burumendi 1 **(1. jub.)**
Arrasate **5-** Elgoibar **2 (Kad.)**
Real Sociedad **2-** Elgoibar **2 (Ini.)**
Zumaiako 1- Elgoibar 5 **(Neskak)**

**Eskubaloia**

Mutriku **20 -** IMH Elg. 20 (Senior mut.)

**Futbitoa**

Kunta Kinte **7-** S. Braga **5**
Berrogei Duro 5- Menisco **3**

**Idarraga Kafeak 2. saria**

**HAUNDIko jokalari erregularrena 98/99**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Eneko | 21 |
| 2- Beitia | 18 |
| 3- Aitor Trebilio | 17 |
| 4-Txasio | 17 |
| 5- Iker Leonardo | 15 |
| 6- Muguruza | 13 |
| 7- Elkoro | 12 |
| 8- G. Leonardo | 10 |
| 9- Madina | 7 |
| 10- Diaz | 7 |
| 11- Igor | 7 |
| 12- Loren | 5 |
| 13- Caro | 5 |
| 14- G. Lazarobaster | 5 |

## . Gh e 11 D A

**Futbolla,** Mintxetan

Larunbata, 5
16:30 Elgoibar - Aretxabaleta **(1. erreg.)**
Igandea, **6**
12:00 Elgoibar - Arrasate **(Int.)**
16:30 Elgoibar - Uni6n Txiki **(L. N. jub.)**

**Eskubaloia,** Kiroldegian

**Larunbata, 5**
**17:00** IMS Elg. **-** Leizaran **(Senior nes.)**
**18:451MH**Elg. **-** Ormaiztegi **(Senior mut.)**

**Xakea,** Juan Mugerza 26an

Larunbata, 5
11:00 Infantilak
**Igandea, 6**
**11:00** Infantilak
**16:00** Jubenilak eta seniorrak
**Astelehena, 7**
**11:00** Infantilak
**16:00** Jubenilak eta seniorrak
**Asteartea, 8**
**11:00** Infantilak
**16:00** Jubenilak eta seniorrak

## Gotzon Garatek esaera zaharrei buruz hitz egingo du abenduaren 17an, osteguna

`Bai Euskarari' kanpainaren baitan antolatu da

Duela pare bat aste kontatu genizuen bezala, Gotzon Garate irakasle eta euskaltzale elgoibartarrak 27.000 atsotiz bildu dituen liburua eta CD-ROMa kaleratu ditu. Honen bueltan, Gotzon Garatek 'Esaera zaharrak eta Euskal Herriko ohiturak' izenburupean jardungo du datorren ostegunean, hilak 17, `Bai Euskarari' Batzordeak antolatuta. Hitzaldia Kultur Etxean izango da arratsaldeko 19:00etan.



*Gotzon Garatek 30 urte eman ditu esaera zaharrak hiltzen.*

## Afari-merienda eta erromeria *Tapia eta leturiarekin*

Kultur Etxeko sotoan izango da hilaren 12an, [arunbata



**Tapia eta Leturia trikitilariak Elgoibarren izango dira datorren ostiralean, abenduak 12, Kultur Errota programaren bigarren saioaren barruan. Erromeria Kultur Etxeko sotoan izango da gaueko 21:00etan hasita. 500 pta.ko sarrera ordainduta, gaueko 22:00ak bitartean mokautxoa eskainiko zaie joaten diren guztiei eta ondoren, gauerdira arte gutxi gorabehera, Tapia eta Leturiarekin erromeria izango da.**

---

# [Solasean eta Jolasean seme-alabekin]

### Gurasoentzako ikostaro bereziak:

1.- **Haurrentzako ipuinak kontatzen ikasteko**
[URTARR[LEAN]

2.- **Haur jolasak eta kantuak**
[OTSAILEAN]

### Prezioa:

- Ikastaro bakarra: 4.000 pta.
- Bi ikastaroak: 6.000 pta.

### Norentzat:

**- Euskaraz konponizeko arazorik ez dutenentzat, eta bereziki, 0-6 urte bitarteko umeen guraso euskaldunentzat**

### Ikastaroaren ezaugarriaC

- 3 orduko ikastaroak.
  Bost aste.
  Astero hiru egunetan:
  Astelehen, asteazken eta ostegunetan.
- Ordutegia aukeran:

### Izen-ematea:

- Udaleko Euskara zerbitzuan (943 74 43 66) edota ikastetxeetan (Pilar, Ikastola edo Herri eskolan).
Epea: abenduaren 18ra arte.

ELGOIBARKO UDALA

aek EUSKALTEGIA

UDAL DEBABE EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATE




# iumaltateak enpresa

**1 – Zuzendaritzarako idazkari ikasketak egin zenituen, ezta?**

- Bai. UBI amaitxutakuan ez nakixan zer ikasi nahi naban. Zuzendaritzarako idazkari izateko aukeria urten jatan eta hor hasi nitzan. Gero, lanian ibili izan naiz han eta hemen baina beti euki dot gogua zeozer gehixo ikasteko. Hurnanitateak eta enpresa ikasketen berri euki nabanian, segitxuan animau nitzan.

**2 - Zergatik?**

Ba, alde batetik, enpresen mundua lantzen dabalako, arlo teknikua: kontabilidadia, ekonomian. Eta, bestetik, giza arloa: sikologia, literatura... Bixen konbinaziva izatia asko gustau jatan. Aurten bigarren kurtsua hasi dot.

3 - **Zein ikasgai dituzue?**

- Danetik piska bat: kontabilidadia, sikologia, ingelesa, euskara, historia, ekonomia, giza baliabideak, marketing, pentsamenduaren historia, artea...

**4 - Lan asko egin behar dituzue, ezta?**

- Bai. Ikasketa hauetan batez ere talde lana lantzen da. Ohitxu bihar zera responsabilidade bat hartzen baina beti ere talde bat kontuan eukitxa, talde lana asko baloratzen da. Horregatik, hasieratik proiektuak bidaltzen dizkizue: dokumentaziva biltzen ikasten dozu, ideak ordenatzen, gestionatzen... Horrez gain, hilean behin liburu bat irakurri bihar dogu, eguneroko gaixak lantzen ditxugu, gaurkotasuna daken gaixak komentau eta egunkarixetatik hartutako notiziekin dosierrak ein... Azken batian, teorian ikasten dogun guztixa errealitatian zela isladatzen dan ikusten dogu.

**5 - Zein da irakasleekin duzuen harrenrtana?**

- Oso ona. Ikasle gitxi gera eta irakasle guztiek gure jarraipena itxen dabe. Ezagutzen gaitxuzte eta igartzen da eurak ere ahalegin haundixa itxen dabela gu gustura egotiarren eta klasia aprobetxatziarren. Karrera berrixa da eta eurak ere ikasten ari dia gurekin batera. Gainera, ikaslioi galdetzen digute irakasliei buruz ze iritzi dakagun, asignaturak zer-moduz dauden... Asko saiatzen dia gauzak ahalik eta onduen itxen.

**6 - Arrasate Unibertsitatean zaude. Ez al da garestia?**

- Ikasle gutziok daukagu aukeria Alecop-en lan itxeko egun erdiz. Nik goizez lan itxen dot eta arratsaldez klasia dakat. Horri esker ikasketak ordaintzeko moduan nao. Ondo antolatzen bazera, danerako denboria dao.

**7 - Praktikak zer?**

- Lelengo kurtsotik bi hilabeteko praktikak in bihar ditxuzu. Oin ari dia enpresekin berba itxen eta nahi dabe lortzia benetako praktikak. Hau da, gerora begira zein lan in bihar dogun kontuan eukitxa, arlo horretan itxia lana, baina benetako lana, eta ez praktiketan zaudelako edozer eitxen egon. Eta, horrez gain, aukeria egon ezkero, enpresan bertan praktikak in eta gero lan kontratua itxia.

**8 - Ikasketak euskaraz dira, ezta?**

- Bai. Kontabilidadia eta beste asignatura batzuk erderaz ematen ditxugu, baina hori da bi hizkuntzetan ondo moldatzia nahi dabelako. Horregatik da hain zaila interkanbiva eitxia beste herrialdiekin, euskeraz izaterakuan ez dabelako ulertzen.

PUB Lajanet elgoibar
Larunbat gauean errobera gainean ibiliko zara

gofi
(k1 flauirremtzako covopct
Gazfetxoenizako corypet
Giza eskubideen enp~, 1 · u 943 74 46 53

# INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**

Anbulategia:
- Larrialdiak ........ 943 461111
- Txanda hartzeko . 943 743354

Pianning-a .......... 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . 943740385
D.Y.A (anbulanizia) . 943 464622
Gurutze Gorria 943 743864
Mendaroko Ospitalea.. 943 756264
Odol Emaileak ... 943 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak. 943 740442
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia . . 943 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua ... 943 744366
Udal Kiroi Patronatua.. 943 744415
Kultura Zerbitzua. . 943 742158
Mendaroko Udala... 943 756100
Ongizate zerbitzua ... 943741008
Udaletxea ............. 943 741050
Udaltzaingoa.. 943 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra ... 943 741626
Kiroldegia ............ 943 744415
Kontsumo Bulegoa ... 943 743088
Liburutegia .......... 943 743525
Musika Eskola 943 742145
Mintxeta ............ 943 744315
Parrokia ............... 943 740842
Postetxea ............ 943 741547
Gaztetxea ............ 943 743572

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza.. 943 740296
Zaharreo Biltokia ... 943 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola .. 943 74 21 41
HHI (EPA) . 943 74 08 80
Herri Eskola ... 943 74 08 79
I.M.H. ............... 943 74 41 32

Herri Institutua
- Arreiturre ... 943 74 02 67
- Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80

Ikastola ............ 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN............ 943 74 41 12
El Diario Vasco ... 943 74 40 73
El Coneo Español. 943 74 10 82
Egin ..................... 943 10 84 21
Zazpiki irratia ... 943 74 34 74

## 4 ostirala

22:15 **ZINEA**
**"E1 show** de Truman"

23:00 **`PATO DUCK' TALDEAREN KONTZERTUA**
Lanbroan

## 5 larunbata

12:00 **ZAZPIKIren BILERA**
Ganbaran

19:30-22:15 **ZINEA**
**"El** show de Truman"

## igandea

**16:30-19:30-22:15 ZINEA**
**"El** show de Truman"

## astelehena

19:30-22:15 **ZINEA**
"El show de Truman"

23:00 **`THE BASQUE COUNTRY' TALDEAREN KONTZERTUA**
Lanbroan

## 8 asteartea

**19:30-22:15 ZINEA**
**"El show** de Truman"

22:00 **JAZZ KONTZERTUA**
`Ramon Dfaz Group'
Oraiko tabernan

## 10 osteguna

22:15 **ZINE KLUBA**
**"La** trama"

## 11 ostirala

19:00 **GAZTE ASANBLADAren BILERA**
Gaztetxean

19:00 **'EXPOGEL 98' ERAKUSKETA**
**Kultur Etxean**
Antolatzailea: Leizarpe Espeleologia Taldea

22:15 **ZINE KLUBA**
"La trama"

## 12 larunbata

10:00 **`SAHARArekin ELKARTASUNA' EGITASMOA**
Plaza Handian
Antolatzailea: Zuhaitz Astialdi Taldea

19:30-22:15 **ZINEA**
**"Barrio"**

21:00 **AFARI-MERIENDA eta ERROMERIA** *TAPIA eta LETURIA***rekin**
(Kultur Errota)
Kultur Etxeko sotoan
Antolatzailea:Elgoibarko Izarra **eta** Topagunea

## 13 igandea

10:30 **JAIOTZEN LEHIAKETA**
Parrokiko Katekesian

16:30 **HAURREN ZINEA**
"Los pequeños guerreros"

19:30-22:15 **ZINEA**
"Barrio"

## 14 astelehena

22:15 **ZINEA**
**"Barrio"**

# ZINEA



**Zuzendaria: Peter Weir.**
**Antzezleak: Jim Carrey, Laura Linney, Noah Emmerich.**

## El show de Truman

Truman-ek 30 urte ditu eta azken aldian zerbait arraroa igartzen hasi da. Truman-ek ez daki bere bizitza muntaia bat baino ez dela. Jaio zenetik, telebistaren historlako telesail arrakastatsueneko protagonista da, `El show de Truman' izeneko telesailekoa hain zuzen. Produktoreak txikikeria guztiak zaintzen ditu Truman ez konturatzeko fikziozkok bizitza hori bere benetako bizitza denik.

## • Bi musika kontzertu Lanbroa tabernan

Lanbroa tabernak bi musika saio antolatu ditu asteburura-ko. Gaur, ostirala (hilak 4), Eibarko `Pato Duck' taldeak gaueko 23:00etatik aurrera joko du. Bigarren musika saioa astelehenean, hilak 7, izango da ordu berean ‘The Basque Country' taldearen eskutik. Askok jakingo duzuen bezala, The Basque Contry-ko kideak desagertutako Koska taldekoak dira.

## 17 osteguna

**19:00 GOTZON GARATEren HITZALDIA**
Izeriburua: 'Esaera zaharrak eta Euskal Herriko ohiturak'
Kultur Etxean
Antolatzailea:
`Bai Euskarari' Batzordea

**22:15 ZINE KLUBA**
"Au Pays des Basques" (1930) eta "El mayorazgo de Basterretxe" (1928)
Aurkezlea: Peio Aldazabal, Euskadiko Filmategiko zuzendaria
Antolatzailea:
Onganͅi Zine Kluba

## 18 ostirala

**19:00 GAZTE ASANBLADAren BILERA**
Gaztetxean

**22:30 ARTAZOren ALDEKO JAIALDIA**
Herriko Antzokian

## • *Jau* konzertua Oraiko tabernan

Datorren asteartean, hilak 8, Bartzelonatik etorritako jazz talde batek kontzertua emango du Oraiko tabernan. `Ramon Diaz Group' da taldearen izena, maila handiko lau musikarik osatzen dute eta Estatuan oso ezagunak dira. Taldearen bigarren diska, `0 si no que' izenekoa, aurkeztuko dute Elgoibarren. Saioa gaueko 22:00etan hasiko da.

## • Jubilatuen Astea abenduaren 14tik 20ra bitartean izango da

Abenduaren 14an hasi eta 20ra bitartera, Jubilatuen Asteko musika saio, dantzaldi eta bestelako ekitaldiekin tarte ederra pasatzeko aukera izango dute henlko edadetuek. Abenduaren 14an Parroki abesbatzak musika saioa eskainiko du eta asteartean, hilak 15, txokolate-jana izango dute. Abenduaren 16an Gabonetako 60 otarren zozketa egingo da eta abenduaren 17rako Itxaropena abesbatzaren ernanaldia antolatu dute. Abenduaren 18an, ostirala, bazkari baten bueltan, 80 urtetik gorakoak eta urrezko eztaiak egin dituzten bikoteak omenduko dituzte eta, bazkalostean, *Duo Plaentxik* dantzan jarriko ditu dantzazale guztiak. Abenduaren 19an kina berezia izango da. Azkenik, hilaren 20an meza nagusia ospatuko da Parrokian eta arratsaldean Gelatxorekin dantza egiteko aukera izango du nahi duen guztiak. Jubilatuen Aste osoan, hilaren 14tik 20ra bitartean hain zuzen, Juana Arrietaren margoak ikusgai egongo dira Jubilatu Etxean.

## • Jaiotzen lebiaketa haurreffizat

Urtero bezala, Parrokiko Katekesiak Jaiotzen Lehiaketa antolatu du 14 urtera bitarteko haurrentzat. Larunbat goizean (hilak 12), parte hartu nahi dutenek izena emango dute Katekesiak Ubitarten duen egoitzan. Hurrengo egunean, hilak 13, jaiotzarik politenak eta orijinalenak aukeratuko dira leku berean. Jaiotza sarituak zein diren hautatu eta gero, partehartzaile guztien lanak ikusgai jarriko dira Errosario kaleko 1 eko Iokalean.

[11 rS] 1,1

### FAR MAZIAK

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 5 | Etxeberria Anduaga (Errosario Kalean) | |
| 6 | Etxeberria Anduaga (Errosario kalean) | |
| 7 | Yudego | Yudego |
| 8 | Zabaleta | Zabaleta |
| 9 | Etxeberria | Etxeberria (Errosario kalean) |
| 10 | Escala | Escala |
| 11 | Bidasolo | Bidasolo |

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

### OKINDEGIA

6 igandea Zabaleta

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: David Mamet.
Antzezleak: Campbell Scott, Rebecca Pidgeon, Steve Martin.

### La trama (USA 1998)

Joe Ross-ek balio handiko asmakizuna sortu du lan egiten duen enpresarentzat. Nagusiak, asmakizunarengatik lortuko dituzten irabazien zati bat eskaintzen dio eta negozio gizon batek, berriz, kontratuen baldintzen inguruko aholkularia izatea proposatzen dio. Joe-k, bere inguruan azpijoko ilunak sortzen ari direla ikusita, ez da lagunekin ez idazkariarekin fidatuko.

# Deoda denea




textil
a irrezabal
g A

- Ehunak eta olhalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak




AIT- ITVtik
100 metrora



**Gotzon Agirrezabal**
Tel/Faxa: 943 76 72 52

**ORDUTEGIA**
astelehenetik zapatura:
10:00-13:00
eta 16:00-20:00.

*Amillaga industrialdea, 5 - BERGARA - Renault-en ondoan*

# NIZICUINITZ
**I TZUILPENI ETA INITERPRETAZIO ZERBITZU" K**
# SOLtrZIOAk

**Ingelesa, Alemana, Frantsesa, Holandera, Portugesa, e.a.**

Esperientzia zabala duen [an taldea
*Teknikoa (makina-erreminta)*
*Komertziala*
*Nazioarteko proiektuak*

- Goi-teknologiaren erabilera
Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa
Prezio lehiakorrak

*Bidal iezaiguzu froga bat eta konbentzituko zara,*




O 1 1 1 1 INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

IMH Eraikuntza Sart Roke Auzoa, 1- P.K. 37 E-maitils@jer.es •Tel. 943 74 40 40 •Fax 943 74 16 54

PRD INFORMATIKA
Buztintxulo, 35 behea • DONOSDA
Tel: 943 29 39 34/Faxa: 943 29 38 33
Azpilgaeta kalea,19 · MENDARO
Tel: 929 41 96 33



Etxera eramaten dugu garantia osoarekin

Stock-ean dauzkagunak amaitu bitarteko eskaintza

## BASIC

Semitorre ATX
Pentium il ATX LX/BX AGP
Intel 266-450 MHZ
3.5" 1.44Mb
32MB DIMM SDRAM
3,4 GB ULTRA DMA
S3 TRIO AGP 4MB
CD-Rom 36x
Digital 14" 0.28
Windows-95 PS/2
Net EASY MOUSE PS/2, alfonbrilla
Soinu tarieta Sound Blaster 16 bits
240 Wko bozgorailuak

| | | |
|---|---|---|
| PENTIUM II 266 CELERON | 101.902 Pta. | 3.288 Pta/hdecr |
| PENTIUM II 300 CELERON | 104 662 Pta. | 3.377 Pta /hdeon |
| PENTIUM II 266 | 116.674 Pta. | 3.765 %./hileon |
| PENTIUM II 300 | 120.376 Pta. | 3.885 %Thileop |
| PENTIUM II 333 | 128 674 Pta. | 4.152 Pla /hileon |
| PENTIUM II 350" | 145.474 Pta | 4.694 Pto /11.1ecn |
| PENTIUM II 400" | 165 874 Pta. | 5.353 % /h.lean |

" BX plaka eta 64 MB

## MEDIUM

Semitorre ATX
Pentium II ATX BX/LX AGP 100 MHZ
Intel 266-450 MHZ
3.5" 1.44Mb
64MB DIMM SDRAM
4,3GB ULTRA DMA
S3 TRIO AGP 4MB
CD-Rom 36x PIONNER
Digitai 15" 0.28 GOLDSTAR 55i
Windows-95/98 PS/2 KEYTRONIC
Net MOUSE Pro Genius PS/2, alfonbrilla
Soinu tarjeta Sound Blaster 16 bits
240 Wko bozgorailuak

| | | |
|---|---|---|
| PENTIUM II 266 CELERON | 132.646 Pta. | 4.280 Pte./111ean |
| PENTIUM II 300 CELERON | 135.406 Pta. | 4.370 Ptalhileon |
| PENTIUM II 266 | 147.418 Pta. | 4.757 Pto /hilean |
| PENTIUM II 300 | 151.120 Pta. | 4.877 Pto./hlean |
| PENTIUM II 333 | 159.418 Pta. | 5.144 % /hilean |
| PENTIUM II 350" | 164.218 Pta. | 5.299 Ptaihileon |
| PENTIUM II 400" | 184,618 Pta. | 5.958 %/hiker |

* BX plaka

## FIDVM 10E

Semitorre ATX
Pentium II ATX BX/LX AGP ASUS 100 MHZ
Intel 266-450 MHZ
3.5" 1.44Mb
64MB DIMM SDRAM
4,3GB ULTRA DMA
Intel 740 AGP 8MB
CD-Rom 36x PIONNER
Digital 15" 0.28 GOLDSTAR 55i
Windows-95/98 PS/2, KEYTRONIC
Net MOUSE Pro Genius PS/2, alfonbrilla
Soinu tarieta Sound Blaster 64 bits
240 Wko bozgorailuak

| | | |
|---|---|---|
| PENTIUM II 266 CELERON | 148.876 Pta. | 4.804 Pta ihrlean |
| PENTIUM II 300 CELERON | 151.636 Pta. | 4.893 Na /i.bleon |
| PENTIUM II 266 | 163.648 Pta. | 5.281 Pto /hilean |
| PENTIUM II 31:10 | 167,350 Pta. | 5.400 Pta Adean |
| PENTIUM II 333 | 175.648 Pta. | 5.668 Pta.Miew |
| PENTIUM II 350" | 180.448 Pta. | 5.823 Pta |
| PENTIUM II 400" | 200.848 Pta. | 6.481 r13 / h ec: |

* BX plaka



## PACK 19.900 PTA




WINDOWS 98,
ANTIVIRUS
PANDA eta
WORKS 4.0

## INPRESORAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| HP 690 | 28.000 Pta. | OKI OKIJET 910 koloreetan | 17.500 Pta. |
| HP 710 | 36.600 Pta. | LASER OKI 4m | 47.200 Pta. |
| HP 720 | 41.508 Pta. | LASER OKI 4W+ | 43.500 Pta. |
| EPSON 700 | 45.748 Pta. | CANON BJC-250 | 18.800 Pta. |
| EPSON 440 | 25.194 Pta. | CANON BJC-4300 | 22.400 Pta. |
| EPSON 640 | 32.994 Pta. | | |

%16 ko prezioan sartzen